

## 19/08 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria  
Xabier Aizpurua  
Josean Bueno  
Ainara Ibañez  
Ana Marta Iriarte  
M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren  
Begoña Pedrosa  
Ismael Redondo  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko ekainaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: **Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua (iTlenT) sortzeko eta bertako lanpostu-zerrenda onartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

## I. AURREKARIAK

Ekainaren 28ko 4/2018 Legea, Euskadiko Lanbide Heziketari buruzkoa, zeinak lanbide heziketako eredu konbinatu bat ezartzen baitu testuinguru berri batekin, prestakuntza integratuaren, berrikuntza aplikatuaren eta ekintzailtza aktiboaren bitartez. Lege horren 3.2 artikuluko c) atalak lanbide heziketako euskal sistemaren helburuak ezartzen ditu, besteak beste, berrikuntza, sorkuntza, ekintzailtzarako gaitasuna eta informazio eta komunikazio teknologien (IKTen) erabilera sustatzea, bai hasierako lanbide heziketan bai enplegurako lanbide heziketan.

Bestalde, 21. artikuluan dio Lege honetan ezarritako helburuak lortzeko, lanbide heziketako eskumenak dituzten sailek beharrezkoak diren aholkularitzako organismo teknikoak izango dituztela, erregelamenduz ezartzen den menpekotasunarekin.

## II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 10 artikuluko dauzka, 3 xedapen gehigarri, 3 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile 1 eta 2 azken xedapen, eta hauxe da edukia:

1. artikulua Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutuaren (iTlenT) sorkuntza eta izaera zehazten ditu.
2. artikulua Eranskinean jasotako lanpostu zerrenda onartzen du.
3. artikulua bere helburuak eta funtzioak ezartzen ditu hiru arlo desberdinetan.
4. artikulua Plan estrategikoaren eta urteko planaren ezaugarriak ezartzen ditu.

5. artikulua antolakuntzaren egitura finkatzen du: zuzendari exekutiboa eta kudeaketa integratuko eremuko zuzendaria, kide horiek osatuko dutelarik zuzendaritza-taldea.

6. artikulua zehazten du zeintzuk diren zuzendari exekutiboaren funtzioak eta 7.ak Kudeaketa integratuko eremuarenak eta bere zuzendariarenak.

8. artikulua esleitutako aurrekontuari eta kontratazio aukerei buruzkoa da.

9. artikulua zentroari atxikitako irakasleen hornikuntza-sistemari buruzkoa da, eta lanpostuen balorazioa ere aipatzen du.

10. artikulua dio institutu honek Hezkuntza Sailak bere esku jarritako ondasunak izango dituela.

Lehen xedapen gehigarriak dio posible dela langile laguntzaileak izatea zailtasun handiko proiektu zehaztutarako. Langile horiek zerbitzu-eginkizun bidez esleituko dira. Bigarrenak dio institutuak LHko zentro bateratuen autonomia erregimena izango duela.

Lehen xedapen iragankorrek dio IDEATK zentroaren materialak esleituko zaizkiola institutuari.

Bigarren xedapen iragankorrek dio ezen, IDEATK-ko lanposturen batek ez badu baliokiderik institutu berriari, bi gauza gerta daitezkeela: langileak behin betiko destinoa badu mugiarazi egingo da eta zerbitzu-eginkizunetan badago, lanpostutik kenduko da.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du irailaren 8ko 168/2015 Dekretua, Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua sortzen duena eta bertako lanpostu zerrenda onartzen duena.

Lehen azken xedapenak institutu berriari esleitzen dizkio 2. artikuluan definitutako funtzioekin zerikusia duten eta IDEATK aipatzen duten araudiko erreferentzia guztiak.

Bigarrenak baimena ematen du indarrean sartu dadin.

### III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Irailaren 8ko 168/2015 Dekretuak Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK) sortu zuen organo tekniko profesional bezala, zeinaren helburu nagusia baitzen oinarritzko gaitasun transbertsal berriak eskuratzea, bide horretatik, pentsamendu sortzailea sustatzeko lanbide heziketako prestakuntza-zikloak egiten dituzten ikasleen artean, artisau-produkzioako espazio sortzaileak garatzeko teknologia aurreratuen bidez, eta ekintzailatza sustatzeko sorkuntza-eremu berrietan.

Teknologia eta ikaskuntza aurreratuetako zuzendariaren memorian justifikatzen den bezala, irailaren 6ko 168/ 2015 Dekretuak IDEATK zentroarentzat ezarritako helburu eta funtzioek ez dute balio Lanbide Heziketako V. Planak Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutuentzat ezarritako helburu guztiak betetzeko. Horregatik, asmoa da Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (IDEATK) aldatzea Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua izan dadin.

Bere 15/12 irizpenean, Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek positiboki baloratu zituen horrelako organo bat sortuz lortu nahi diren helburuak.

**Sortu zenetik 4 urte igaro diren honetan, Kontseiluak uste du memorian edo zioen azalpenean jaso egin behar liratekeela IDEATK-ek urte hauetan egin duen lanari buruzko aipamenak eta lan horren ebaluazioa. Horregatik, proposatzen dugu institutu berriari egingo zaion ebaluazioa publikoa izatea.**

Lanbide Heziketako V. Euskal Planak bere 9. Eremu Estrategikoan dio 3 egitura organiko espezializatu sortuko direla. Horietako bat da Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua, zeinak helburu hauek izango baititu:

1. Helburua: Talentuaren mapa bat ezartzea Lanbide Heziketan.
2. Helburua: Elkarlaneko ikaskuntzako proiektuak garatzea, etorkizunean sortuko diren premiei aurre hartzeko eredu metodologiko berriak erabiliz.
3. Helburua: Talentu indibiduala sustatzea, bultzada bat emanez pentsamendu kritiko, eraikitzaile eta sortzaileari eta adimen emozional, sortzaile eta exekutiboari.
4. Helburua: Sormena sustatzea talentua garatzeko funtsezko elementu gisa.

**Kontseilua ados dago institutu berriari esleitzen zaizkion helburu eta funtzioekin, horien artean daudelarik IDEATK-k garatzen zituenak.**

Arau honetan erregulatzen diren beste alderdi batzuei dagokienez, IDEATK arautu zuen Dekretuan ezarritakoen berdina dira: plan estrategikoa eta urteko plana, aurrekontua eta kontratazioa, langileak eta lanpostuen hornikuntza.

**Kontseiluak balorazio positiboa egiten du arau-proiektuaz, ulertzen duelako egungo gizartearen aldaketa azkarrek etengabeko egokitzapena eta eboluzioa eskatzen dutela premia sozialetara eta lan-arloko eszenatoki berrietara moldatzeko.**

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2019ko ekainaren 21ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA